

Saila: 40 NEKAZARITZA

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

MENDI ZERBITZUAREN MEMORIA

MEMORIA DEL SERVICIO DE MONTES

I. MEMORIA

Mendi Zerbitzua Araban dauden mendietako berezko ekosistemak zaintzeaz eta ekoizteaz arduratzen da programa honen barruan; mendi horiek 183.826 ha-ko azalera hartzen dute Araban, hau da, Arabako lurraldearen % 60,52; eta mendi publikoen hedadura, bestalde, 143.384 ha-koa da (mendien azaleraren % 78). Horrez gain, Mendi Zerbitzuak bere gain hartzen ditu ehiza eta arrain baliabideak bultzatzeko eta mantentzeko lanak, Arabako ur ibilguetako bizitza urtarraren kalitateari eusteko zereginak barne hartuta.

Basoko kudeaketa iraunkorraren helburua da mendi sistemetatik produktu eta zerbitzuetan errentagarritasun handiena lortzea, haien barruan funtsezkoa den bat sartuta: mendiko ekosistemekin loturiko biodibertsitate biologikoaren mantentzea, alegia.

Programaren aurrekontu partiden bitartez hurrengo ekintzak bideratzen dira: baso sistemak ahalik ondoen mantentzea, unada hautatueta haziak hartzetik landare egokiak lortu arteko lanak; basoen berezko birsorkuntza sustatzea (Arabako garrantzia handia du, mendi publikoek hartzen duten azalera handiagatik); osasun egoeraren eta oreka biologikoaren jarraipena egitea; basoetako suteek duten eragina murrizteko prebentzioa, zaintza eta lanak; eta suteak ebakitzeko eremuak sortzea.

Arabaren ondarekoak diren mendietan eta Arabako Foru Aldundiak zuzeneko partzuergoan dituen mendietan egiten diren lanak beste hauetarako ematen diren dirulaguntzekin osatzen dira: nola mugak ezartzea, mugarriak jartzea eta plan teknikoak, hala toki erakunde txikiek eta partikularrek kudeatzen dituzten proiektu eta lanak; betiere, Europar Batasunaren arauen ondoriozko laguntza planen arabera; horretarako izapidetzen baitira planetan aurreikusitako dirulaguntzak.

I. MEMORIA

El Servicio de Montes atiende en las distintas facetas de este programa a las actividades de conservación y producción de los ecosistemas propios de los montes, que ocupan en Alava una superficie de 183.826 ha, que supone el 60,52% del territorio alavés, siendo la extensión de montes públicos de 143.384 ha (el 78% de la superficie de monte), así como a las facetas de promoción y mantenimiento de los recursos cinegéticos y piscícolas, incluyendo la permanencia de la calidad de la vida acuícola en los cursos y planos de agua de Alava.

La gestión forestal sostenible tiene como objetivo a obtener la máxima rentabilidad de los sistemas montanos en productos y servicios, incluyendo en éstos uno tan fundamental como es el mantenimiento de la biodiversidad biológica asociada a los ecosistemas montanos.

La consecución del mejor estado posible de los sistemas forestales, desde la obtención de semillas de rodales selectos hasta el logro de las plantas adecuadas, el fomento de la regeneración natural de los bosques, de tanta importancia en Alava dada la extensa superficie de montes públicos, el seguimiento del estado sanitario y del equilibrio biológico, la prevención, vigilancia y obras que disminuyan la incidencia de los fuegos forestales y la creación de áreas cortafuegos se canalizan a través de las partidas presupuestarias del programa.

Los trabajos en los montes patrimoniales de Alava y en los montes consorciados directamente por la Diputación Foral, se complementan con las subvenciones que se conceden para deslinde, amojonamiento, ordenación y planes técnicos, así como para proyectos y obras gestionados por las Entidades Locales Menores y los Particulares, de conformidad con los Planes de Ayudas derivados de las normas reglamentarias de la Unión Europea, a cuyo efecto se tramitan las subvenciones previstas en

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

Basoko suteei aurrea hartzea eta mendiak haietatik babestea eta basoen osasun egoeraren jarraipena –hala dagokionean, izurri eta gaitzen tratamendua barne delarik– Arabako mendien baso kudeaketaren atal garrantzitsu bat dira.

Zerbitzu honek egiten dituen gainerako jarduerak honako hauek ditugu: ehiza eta arrain populazioak aztertzea, beraien ustiapena planifikatzea, ehiza eta arrantza federazioekin eta ehiztarien eta arrantzaleen elkarteekin lankidetzan aritzea, eta zaintza lana egitea, landa ingurunearen eta ingurune urtarraren baldintzak basoko bizitza garatzeko egokiak izan daitezzen.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaion zenbakiaren arabera azalduko ditugu helburuen gauzatze maila.

1. Baso jabetza publikoa ziurtatzea.

Baso jabetza publikoaren defentsa Bastidako OPko 167 eta 168 zenbakiko mendietan mugak ezartzeko espedienteekin jarraituz (2008an, ofizioz abiarazi zirenak, hain zuzen ere) eta mugak ezartzeari buruzko 4 espedienteren (Murgia – Aretxaga, Zarate, Mendiguren eta Okondoko katalogatutako mendienak) eta mugariak jartzeari buruzko espediente baten administrazio ebazpena emanaz egin zen.

Halaber, laguntza planaren bidez mugak ezartzeari buruzko hainbat urtetako 6 espedientek dirulaguntza jaso zuten eta Mendi Zerbitzuko teknikari batek ingeniari operadore lanak egin zituen, Arabako Foru Aldundiaren izenean.

Katalogatutako mendietako okupazio edo trukaketari buruzko hogeita hamar bat espedientetan esku hartu zen, informazioa emanaz edo, mendien onura publikoarekin bateragarriak izanez gero, baimena izapidetuz.

2. Sute eta gaitzak saihestea

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

los planes.

La prevención y defensa del monte contra los incendios forestales y el seguimiento del estado sanitario de los bosques, incluyendo en su caso el tratamiento de plagas y enfermedades, constituyen una parte importante de la gestión forestal de los montes alaveses.

El estudio de las poblaciones cinegéticas y piscícolas, la planificación de su aprovechamiento, la colaboración con las Federaciones de Caza y Pesca y las Asociaciones de Cazadores y Pescadores, así como la vigilancia y mantenimiento de las condiciones apropiadas del medio rural y acuícola para el desarrollo de la vida silvestre completan las actividades de este Servicio.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

1. Asegurar la Propiedad Pública Forestal.

La defensa de la Propiedad Pública Forestal se ejerció continuando con el expediente de deslinde de los montes de U.P. 167 y 168 de Labastida, iniciados de oficio en 2008 y la Resolución administrativa de 4 expedientes de deslinde (montes catalogados de la pertenencia de Murgia – Aretxaga, Zarate, Mendiguren y Okondo) y un expediente de amojonamiento.

Además, a través del Plan de ayudas se subvencionaron 6 expedientes de deslinde de carácter plurianual, en los que un técnico del Servicio de Montes realizó las tareas de Ingeniero Operador en nombre de la Diputación Foral de Álava.

Se intervino, informando o tramitando la correspondiente autorización en caso de compatibilidad con la utilidad pública de los montes, en una treintena de expedientes de ocupación o de permuta en montes catalogados.

2. Evitar incendio y enfermedades

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

Mendi publiko askotan basoetako suteei aurrea hartzeko eta suteak ebakitzeko eremuak mantentzeko baso obrak eta lanak egin ziren. Zaintza taldeak *alerta* egoeran egon ziren arrisku maila neurritzkoa edo handiagoa izan zen egunetan. Talde horiek ere 29 baso sute itzaltzeko lanak egin zituzten, baita baso sute izatera heldu ez ziren hainbat su txiki itzaltzekoak ere. Suteek kaltetutako basoko azalera guztira 16,74 hektareakoa izan zen; zorionez, 2009an erre ziren 731,99 hektareak baino askoz ere gutxiago.

Zaintzapeko erreketak egiteko 254 baimen izapidetu ziren.

Baso osasunerako jardueri dagokienez, 3.550 ha konifero aldeak pinu beldarraren kontra tratatu ziren (130 ha, lurreko tratamenduaren bidez eta 3.420 ha, aireko tratamenduaren bidez) eta 20 hektareako hosto zabalen aldeak, berriz, makaletako zorri lanigeroaren aurka tratatu ziren, lurreko tratamenduaren bidez. *Gibberella circinata* (= *Fusarium circinatum*) antzemateko, 95 gune edo lurzatitan, sare iraunkorraren eta ibilbideen artean, prospekzioak egin ziren. Hala, jasotako laginen 25 azterketa egin ziren laborategian; halaber, sare iraunkorraren lurzatieta eta egurra prozesatzeko industrietan zein mendian arrisku handia duten lekuetan 60 ikuskapen egin ziren eta 36 lagin erregistratu eta aztertu ziren, *Bursaphelenchus xylophilus* antzemateko; horrez gain, gaztainondo kopuru handiena duten Arabako zonetan prospekzioak egin ziren, *Dryocosmus kuriphilus* organismoa bertan ote zegoen antzemateko asmoz, baita astigar, haltz, zumar, urki, xarma arrunt, pago eta lizarrek osatutako basoetan *Anoplophora chinensis* eta *Agrilus planipennis* antzemateko beharrezko ikuskapenak egin ere. Ekintza prebentibo horiek guztiek basoak eta beraiekin loturiko sistemak iraunarazten lagundu zuten; era berean, aipatutako ekintzen bidez egiaztatu ahal izan da gure lurraldean ez daudela koarentena eragingo luketen bost organismo horiek. Informazioa trukatu eta eguneratu eta koarentena

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

Se realizaron obras y trabajos selvícolas de prevención de incendios forestales, de mantenimiento de áreas cortafuegos en numerosos montes públicos. Los retenes de vigilancia estuvieron en situación de *alerta* durante los días en los que el nivel de riesgo fue igual o superior a moderado. Se atendieron por estos mismos equipos los trabajos de extinción de 29 incendios forestales, así como todos aquellos numerosos conatos que no acabaron en incendio forestal. La superficie forestal total afectada por los incendios fue de 16,74 hectáreas; nada que ver, afortunadamente con las 731,99 hectáreas que se quemaron en 2009.

Se tramitaron 254 autorizaciones de quemas controladas.

En sanidad forestal, se trataron 3.550 ha arboladas de coníferas contra la procesionaria del pino (130 ha mediante tratamiento terrestre y 3.420 ha mediante tratamiento aéreo) y 20 ha arboladas de frondosas contra el pulgón lanífero del chopo, mediante tratamiento terrestre. Se prospectaron 95 puntos o parcelas, entre la red permanente e itinerarios, para la detección de *Gibberella circinata* (= *Fusarium circinatum*), realizándose 25 análisis de laboratorio de las muestras recogidas; así mismo se realizaron 60 inspecciones correspondientes tanto a las parcelas de red permanente como a industrias de procesado de la madera y lugar de alto riesgo en el monte, con el registro de 36 muestras y análisis para la detección de *Bursaphelenchus xylophilus*; también se ha realizado la prospección de las zonas con mayor presencia del castaño en Álava encaminada a la detección de la presencia del organismo *Dryocosmus kuriphilus*, así como las oportunas inspecciones en las masas forestales con presencia de arces, alisos, olmos, abedules, carpas, hayas y fresnos para la detección de *Anoplophora chinensis* y *Agrilus planipennis*; contribuyendo todas estas acciones preventivas, que han constatado la ausencia de los citados cinco organismos de cuarentena en nuestro Territorio, a la conservación del vigor de los bosques y sistemas asociados. Se ha asistido a diversas reuniones del Comité Fitosanitario Nacional, del

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

eragingo luketen bost izurri horiek modu eragingorrean nola antzeman gehiago jakite aldera, honako hauen bileretara bertaratu gara: Landare Osasunerako Batzorde Nazionala; Basoen, Parkeen eta Lorategien Landa Osasunerako Lantaldea; eta Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek osatutako EAEko Baso Osasuneko Batzordea.

3. Mendi publikoak modu iraunkorrean kudeatzea

Urteko 35 baso planen bitartez, 2010. urtean hurrengoak arautu ziren: egur aprobetxamenduak, egurketen aprobetxamenduak, mendi publikoetako laboreetarako eta belardietarako luberritze aprobetxamenduak, larreen aprobetxamenduak eta berezko birsorkuntzarako eremuak mugatzekoak. Betiere, helburu bikoitzarekin: alde batetik, baliabideetatik ahalik etekin handiena ateratzea eta horien garapen jarraitu edo iraunkorra egitea. Gainera, "egur hil eta eroriak" ustiatzeko 323 baimen izapidetu ziren; egur horietako asko Xynthia urakan suntsitzaileak eragindakoak izan ziren.

Halaber, "Higatzeko arriskua duten mendiak basoberritzea" izeneko EGEF 2007-2013 programaren baitan, guztira 5 proiektu gauzatu ziren: narriatutako gunek basotzeko 2 proiektu, 14,3 ha-ko azaleraren gainean, eta 2009ko uztaileko sute larrietan erre ziren mendi zonak (guztira, 115,09 hektarea) itxuraberritzeko 3 proiektu. Gizartetik baztertuta geratzeko arriskua zuten zenbait pertsonak azken egitasmo horietan parte hartu zuten.

Zoritxarrez, 2009ko abuztuko suteen ondorioz eta 2010eko urtarrileko Xynthia zikloiaren ondorioz kalteturik gertatu ziren herri erakundeetako mendiak garbitu eta egurra ateratzeko lanetan arreta jarri zuen basogintzako laguntza planak. Hortaz, 2010eko eta 2011ko aurrekontu baliabideak agortu egin ziren, eta ezin izan zitzaizkien hondamenak konpontzeko eskaera guztiei erantzun. 2010. urtearen kontura 6 erakundek dirulaguntza jaso zuten eta 2011. urtearen kontura, berriz, 26 erakundek.

Mendien sistema teknikoak eta kudeaketa

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

Grupo de Trabajo Fitosanitario de Forestales, Parques y Jardines y de Sanidad Forestal de la CAPV (Gobierno Vasco y Diputaciones Forales) para intercambiar y actualizar información y reforzar los conocimientos para la detección eficaz de estas cinco plagas de cuarentena.

3. Gestionar de forma sostenible los Montes Públicos

Mediante 35 planes forestales anuales, se regularon en 2010 los aprovechamientos madereros, de leñas foguerales, de roturaciones para cultivos y prados en montes públicos, de pastos, de acotamiento de zonas para regeneración natural, procurando obtener la máxima renta de recursos, compatible con el sostenimiento continuado de los mismos (desarrollo sostenido o sostenible). Además se tramitaron 323 autorizaciones de aprovechamiento de "Leñas muertas y rodadas", muchas de ellas motivadas por el efecto devastador del huracán Xynthia.

Dentro del Programa FEDER 2007 - 2013 de "Restauración Forestal de Montes en Riesgo de Erosión" se ejecutaron un total de 5 proyectos: 2 de forestación de áreas degradadas sobre una superficie de 14,3 ha y 3 proyectos de restauración de zonas de monte que se quemaron durante los graves incendios de julio de 2009 y que comprendieron una superficie total de 115,09 hectáreas, y en cuya ejecución se integraron personas con riesgo de exclusión.

Lamentablemente, el Plan de Ayudas Forestales, tuvo que centrarse en auxiliar los trabajos de limpieza y saca de los montes de las Entidades públicas que sufrieron daños por los incendios de julio de 2009 y por el ciclón Xynthia, de enero de 2010. Se agotaron así las disponibilidades presupuestarias de 2010 y 2011, sin poder atender a todos los trabajos de restauración de desastres. En concreto con cargo a 2010 se subvencionó a 6 entidades y con cargo a 2011, 26 entidades.

Para mejorar los sistemas técnicos y de gestión sostenible de los montes se continuó con el estudio

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

iraunkorrekoak hobetzeko mendietako larreko produktibitateari buruzko azterlanarekin aurrera jarraitu zen, batez ere "Natura 2000" Europako Sare Ekologikoaren baitako menditar guneeetan.

Martxoaren 9an, Arabako Foru Aldundiko eta Arabako tokiko erakundeetako erabilera eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen 10/2010 Foru Dekretua onartu zen. Ondoren, IKT enpresaren laguntzaz, Baso Bideen Inbentarioa eguneratu zen, nahiz eta onartutako dekretu horrek bi urteko epea eman zuen lan hori egiteko.

“Arabako Lurralde Historikoko Baso Erreserben Katalogoa” onartu ondoren, bertan txertatzeko proposatu ziren espazioak kudeatzeko 3 plan idazteko agindu zen. Hain zuzen ere, honako espazioak izan ziren proposatutakoak: Jugatxi, Igoroin eta Labrazako Dueñasko Pinudia.

Era berean, mendi publikoak antolatzeko planak idazteko baldintza teknikoen agiria, asmo handikoa, idatzi zen, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 34.1 artikuluan ezarritakoa betez. Metodo berritzaile gisa, hainbat pertsonak parte hartu zuten agiri hori egiten: Euskadiko eta estatuko zenbait administratuzotako teknikariek, basogintzako enpresa eta elkarteetako teknikariek, eta toki erakundeetako ordezkariak.

4. Mendi pribatuen kudeaketa iraunkorrari laguntzea

Mendi publikoetan gertatu zen bezala, Xynthia urakan suntsitzaileak kaltetu zituen mendi pribatuei batez ere lagundu zitzairen, ezin baitzen gerorako utzi. 52 eskaera onartu ziren, 2010eko aurrekontuaren kontura, eta 72 eskaera, 2011ko kredituaren kontura konprometitu ziren; onuradunak, sexuaren arabera, 47 emakume eta 76 gizon izan ziren. Beste 2 onuradun pertsona juridikoak izan ziren.

Titulartasun pribatuko mendietan zuhaitzak mozteko 814 baimen izapidetu ziren; aurreko

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

de productividad pascícola en los montes, con incidencia especial en los espacios montanos integrados en la Red Ecológica Europea “Natura 2000”.

Con fecha 9 de marzo se aprobó el Decreto Foral 10/2010 que regula la circulación de vehículos a motor en los montes de utilidad pública y demaniales de la Diputación Foral de Álava y de las entidades locales alavesas. A continuación se actualizó, con auxilio de la empresa IKT, el Inventario del Viario Forestal, aún cuando para su realización el decreto aprobado daba un plazo de dos años.

Se encargó la redacción 3 planes de gestión de espacios propuestos para su inclusión en el “Catálogo de Reservas Forestales del T.H. de Álava” cuando éste se apruebe. En concreto el de Jugatxi, el de Igoroin y el del Pinar de Dueñas de Labraza.

Asimismo se redactó un ambicioso documento de Pliego de Condiciones Técnicas para la redacción de los Planes de Ordenación de Montes Públicos, siguiendo el mandato del artículo 34.1 de la N.F. de Montes 11/2007. Como método novedoso, en la elaboración de este documento participaron técnicos de distintas administraciones, vascas y estatales, técnicos de empresas y asociaciones del sector forestal y representantes de las entidades locales.

4. Ayudar a la Gestión Sostenible de los Montes particulares

Al igual que en el caso de los montes públicos, se atendió fundamentalmente al ayudar a los montes particulares que sufrieron el efecto devastador de Xynthia, ya que la actuación en ellos no se podía demorar. Se atendió a 52 solicitudes con cargo al presupuesto de 2010 y de 72 que se comprometieron a crédito del año actual 2011, repartiéndose por sexos las personas beneficiarias en 47 mujeres y 76 hombres. 2 beneficiarias fueron personas jurídicas.

Se tramitaron 814 autorizaciones de corta de arbolado en montes de titularidad particular, casi el doble de las del año anterior, lo que pone de

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

urteko kopuruaren bikoitza, alegia. Horrek argi uzten du Xynthia delakoak gure lurraldean eragin zuen kalte handia.

Mendien kudeaketa sistemak hobetze aldera, batik batik mendi partikularrena, eta basoen ziurtagiria sustatze aldera, izapidetu eta onartu egin zen Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plan Teknikoen (aurrerantzean BKIPT) edukia, onespena, azterketa eta jarraipena arautzen dituen abenduaren 14ko 61/2010 Foru Dekretua.

5. *Ehiza modu iraunkorrean kudeatzea*

Ehizako xedapen nagusiak hauek dira: urtero ematen den ehiza arautzeko agindua (debekualdi agindua izenez ezagutzen dena); udazkeneko pase garaian usoak eta Arabako mendebaldean orkatza ehizatze arauak; eta azkenik, Kuartangoko esparru sozialaren erabilerari buruzko araudia.

2010. urtean, Kuartangoko esparru sozialeko lurak alokatzen eta, ondorioz, lur horietan dagoen ehiza esparru soziala kudeatzen jarraitu zen. Esparru sozial horretan 389 ehiztarik oilagorra ehizatze baimena izan zuten. Gainera, 1.499 faisai askatu ziren eta 653 ehiztarik hartu zuten parte horiek ehizatzen.

Arabako Ehiza Esparruen Elkartarekin (AEEE), EHIZA izeneko Ehiza Esparruen Elkartarekin eta Arabako Arrantza Federazioarekin elkarlanean jarraitu zen. Horrek ehiza eta arrain baliabideak planifikatzen eta behar bezala erabiltzen lagundu zuen. Ehiza esparruak kudeatzen laguntzeko foru aginduak hori guztia osatu egiten du.

Ehiza espezieek eragindako zirkulazio istripuen inguruko informazio espedientei dagokienez, 240 izapidetu ziren.

Usoen eta birigarroen eztei ondoko migrazioari buruzko azterketa kontratatu zen.

Ehizaren kudeaketa arloko hainbat gairi buruzko dekretu baten aurreproiektua idatzi zen, hain zuzen ere, ehizakien askatzeak eta birpopulatuak, ehiza

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

manifiesto el enorme perjuicio que causó Xynthia en nuestro territorio.

En orden a mejorar los sistemas de gestión de los montes, con atención especial a los montes particulares, y promover la certificación forestal, se tramitó y aprobó el Decreto Foral 61/2010 de 14 de diciembre para *Regular el contenido, la aprobación, la revisión y el seguimiento de los Planes Técnicos de Gestión Forestal Sostenible (PTGFS)*

5. *Gestionar de Forma Sostenible la Caza*

Las Orden Anual de Caza (conocida como Orden de Vedas), así como la correspondiente a la caza de la paloma en la época otoñal de pasa y la del corzo en el occidente de Alava, junto con la normativa que regula el uso del Coto Social de Kuartango son las disposiciones principales en materia de Caza.

Durante el año 2010 se continuó con el arrendamiento de los terrenos del Coto Social de Kuartango y con la subsiguiente gestión del Coto Social de Caza ubicado en dichos terrenos. 389 cazadores han disfrutado de permisos de caza de becada en este coto social. Además se liberaron 1.499 faisanes en cuya caza participaron 653 cazadores.

Se continuó con la colaboración con la Asociación de Cotos de Caza de Alava (ACCA), con la Asociación de Cotos de Caza *EHIZA* y con la Federación Alavesa de Pesca, colaboración que ha facilitado la planificación y utilización correcta de los recursos cinegéticos y piscícolas, que se completa con la Orden Foral de ayuda a la gestión de cotos de caza.

Se tramitaron 240 expedientes informativos sobre accidentes de tráfico ocasionados por especies cinegéticas.

Se contrató un estudio sobre la migración postnupcial de palomas y zorzales.

Se redactó un anteproyecto de Decreto sobre distintos temas relacionados con la gestión cinegética; en concreto está destinado a regular la sueltas y repoblaciones cinegéticas, las granjas

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 40 NEKAZARITZA

Programa: 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

abeletxeak, ehiza eremu industrialak eta txakur heziketarako zonaldeak eta abar arautzeko asmoz. Foru dekretuaren zirriborro horrek jendaurreko entzunaldiko izapidea izan zuen.

Fauna zinegetikoa hobetzeko lanek dirulaguntza jaso zuten, 7 ehiza esparruk jaso baitzituzten dirulaguntzok.

Otsoek abereei egindako erasoak direla eta, 16 kasu peritatu ziren eta zegozkion kalte-ordainak izapidetu ziren. Abereak otsoetatik babesten dituzten artzabururak izateagatik laguntzak banatu zitzaizkien 36 abeltzaintza ustiatagiri; guztira 88 artzabururak izan ziren.

6. Arrantza modu iraunkorrean kudeatzea

Debekualdiari buruzko foru aginduak arrantza epeei eta guneei buruzko arautegia xedatu zuen. 2009. urtean arrantzaren murrizketekin jarraitu zen, Sobron urtegian eta Ebro ibaiak Arabatik igarotzean dituen ertzetan, zebra muskuiluen izurriaren ondorioz. Hala, salbuespenezko neurriak ugaritu ziren, Zadorraren ertzetan arrantza mugatuz. Aldundiak, Eskalmendiren bulegoetan, salabardoak desinfektatzeko zerbitzua eskaintzen jarraitu zuen; Zadorrako esparruan karramarroa arrantzatzen duten arrantzaleek nahitaez erabili beharreko baliabidea izan zen hori.

2010ean Arabako Arrantza Federazioarekin Araban arrantza kontrolatzeko eta baimenak izapidetzeko sinatuta zegoen hitzarmenari eutsi zitzaion. Hala ere, urte bukaeran federazioak hitzarmenaren amaiera iragarri zuen.

Guztira, 14.124 ostadar amuarrainez birpopulatu ziren hainbat ibai, zona libreetan zein mugatuetan.

URA Uraren Euskal Agentziak eskatuta, urek arraintzako kalitateari dagokionez jasandako balizko kalteei buruzko 12 espedienteren gaineko txostenak eman ziren.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 40 AGRICULTURA

Programa: 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

cinéticas, las zonas industriales de caza y las áreas de adiestramiento de perros, entre otras materias. Este borrador de decreto foral fue sometido a trámite de audiencia pública.

Se subvencionaron trabajos de mejora para la fauna cinegética, subvenciones de las que fueron beneficiarios 7 cotos de caza.

Se peritaron 16 casos de ataques con daños ocasionados por el lobo a la ganadería y se tramitaron las correspondientes indemnizaciones. Se concedieron ayudas a 36 explotaciones ganaderas por la tenencia de 88 perros mastines como medida preventiva de ataques de lobo.

6. Gestionar de forma sostenible la Pesca

La Orden Foral de Vedas estableció la Regulación de los Períodos y Zonas de Pesca. En 2009 se continuó con las restricciones a la pesca a causa de la plaga de mejillón cebra el embalse de Sobrón y el río Ebro en sus márgenes alavesas, ampliándose las medidas excepcionales con limitaciones a las artes de pesca en las márgenes del Zadorra. La Diputación, en sus dependencias de Eskalmendi, continuó dando un servicio de desinfección de redes, de uso obligatorio para los pescadores de cangrejo del coto del Zadorra.

Se continuó en 2010 con el Convenio con la Federación de Pesca de Álava para el control de la pesca en Álava y tramitación de permisos, convenio que fue denunciado por la Federación a final de año.

Se repoblaron diversos cursos de agua, en zonas libres y acotadas, con un total de 14.124 ejemplares de trucha arco – iris.

Se informaron 12 expedientes en relación con posibles afecciones a la calidad piscícola de las aguas a solicitud de URA, la Agencia Vasca del Agua.